

Izan zirelako gara! Bihotz Gaztea Ikastolako ahozko historiako proiektua

(We owe our existence to them! Oral history project of
the Bihotz Gaztea Ikastola [Basque-medium school])

Fernández, Idoia

UPV/EHU. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fak. Hezkuntzaren
Teoria eta Historia Saila. Tolosa Hiribidea, 70. 20018 Donostia

Zuazola, Miriam; Bilbao, Jesús M^a

Bihotz Gaztea Ikastola. Grupo San Juan de Dios, s/n.
48980 Santurtzi

BIBLID [1137-4446 (2008), 16; 393-413]

Jaso: 07.06.14

Onartu: 07.12.03

Historiaren ikerkuntzan ahozko lekukotasunak ohiko lanabesak dira, baina zer gertatzen da leku-kotasun horiek jasotzea eta historia bera idaztea ikaskuntza tresna bilakatzen dugunean? Santurtziko Bihotz Gaztea Ikastolak ideia horri heldu eta ahozko historiako proiektua taxutu eta garatu du, haur hezkuntzatik hasita derrigorrezko bigarren heziketakorainoko ikasleak ikerlari bihurtuz. Lan honetan prozesu hori nola egin zen ulertzeko gakoak azalduko ditugu, hezkuntza formal zein ez-formaleko ingurumarietan ere historia beste era batez ikastea abentura ziragarria dela erakutsiz.

Giltza-Hitzak: Lekukotasun pertsonalak. Ahozko historiako eskola proiektuak. Historiaren didaktika.

Los testimonios orales son instrumentos habituales de la investigación histórica, pero ¿qué pasa cuando convertimos la recogida de esos testimonios y la redacción de la propia historia en herramienta de aprendizaje? La Ikastola Bihotz Gaztea de Santurce se ha hecho eco de esa idea y ha preparado y desarrollado un proyecto de historia oral, convirtiendo a los alumnos, desde educación infantil hasta educación secundaria obligatoria, en investigadores. En esta obra explicaremos las claves para comprender cómo se ha llevado a cabo este proceso, demostrando que aprender historia de otra forma puede ser una aventura impresionante, tanto en la educación reglada como en la no reglada.

Palabras Clave: Testimonios personales. Proyectos escolares de historia oral. Didáctica de la historia.

Les témoignages oraux sont des instruments habituels dans les travaux de recherche historique. Mais, qu'arrive-t-il lorsque nous transformons la collecte de ces témoignages et la rédaction de la propre histoire en outil d'apprentissage ? L'Ikastola Bihotz Gaztea de Santurce s'est fait l'écho de cette idée et a mis au point et développé un projet d'histoire orale, en transformant en chercheurs les élèves de l'enseignement primaire et secondaire. Nous offrons, dans cet ouvrage, les clés pour comprendre le déroulement de ce processus, qui a montré que découvrir l'histoire d'une manière différente peut s'avérer une aventure passionnante, aussi bien dans l'enseignement réglementé que non réglementé.

Mots Clé : Témoignages personnels. Projets scolaires d'histoire orale. Didactique de l'histoire.

ATARIKOA

Historiaren ikerkuntzarako ahozko iturrien erabilpena historia bera bezain zaharra dela esan genezakeen arren, egia da horien erabilpena XX. mendearen erdialdetik aurrera, historia sozialaren jaiotzarekin batera, nabarmenki zabaldu zela. Gune ezberdin batzuk aipa genitzake zabalkunde garaikide horretan: Paul Thompson buru dutela Essex-eko Unibertsitateko taldea (Thompson, P. 1984, 1988; Fraiser, R. 1979, 1985, 1986a, 1986b) Oxford-eko Ruskin Collegen Raphael Samuelek (Samuel, R. 1984) bultzatzen zuen *History Workshop* izeneko proiektua, Provencen lan egiten duen Philippe Joutarden (Joutard, P. 1984, 1986) taldea eta Estatu Batuetan Studs Terkelen ekarpenak eta 1967.etik aurrera *The Foxfire Book* proiektuak izandako arrakasta (Fernández, I. 1993).

Ahozko iturriak hobetsi eta haiek erabilita ikerketa historikoko lan esanguratsuak egiteaz gain, aipatutako inguru horietako egileek historiak jendartearen bete beharreko funtzioaz ere ohartarazten digute:

La historia oral no es necesariamente un instrumento de cambio, eso depende del espíritu con que se la utilice. No obstante, la historia oral puede ser realmente un medio de transformar tanto el contenido como el propósito de la Historia. Puede usarse para cambiar el enfoque mismo de la Historia y abrir nuevas áreas de investigación; puede romper barreras entre profesores y estudiantes, entre generaciones, entre instituciones docentes y el mundo exterior; y en la escritura de la Historia –sean libros, museos, radio o películas– puede devolver a la gente que hizo y vivió la Historia un lugar central a través de sus propias palabras (Thompson, P. 1988:11).

Paul Thompsonen hitz hauekin hagitz argi geratzen da zein izan den orain aurkeztera goazen ahozko historiako proiektuko ideia nagusietakoa: historia egin zutenei hitza eman eta, kasu honetan, belaunaldi berri bati kontatu, harreman horretan heziketa prozesua sortaraziz. Ez baita gurea interes historiografiko soila, baizik eta historiak bizitzarekin harremanetan jarri eta bertan subjektu rola ere joka dezakegula komunikatzea (Freire, P. 1997, 1999).

Halaber, ahozko historia bere adiera hezitzailean aintzat hartuta burutu diren esperientzia desberdinak aztertu eta gure egin ditugu, bat bera ere eredu hartu gabe, baina guztietatik atera daitezkeen ideiak, aholkuak eta behin-behineko ziurtasunak gurera ekarri eta berregokituz. Luze joko luke guztiak aipatzea baina bereziki erabilgarria iruditu zaigu gai honetan ia klasiko bat bilakatu den T. Sitton, G. Mehaffy eta O. L. Davis-en lana (1989).

Lan honen egituran ere prozesuak izan duen filosofia bera islatu nahi dugu. Gauzak horrela, *Hastapenak gogoan* eta *Zenbait ondorio* izeneko atalek ikastolako pertsonak idatzirikoa da, hain justu beren esperientziaren ikuspegitik eginiko ekarpen bizia. Gainerakoan, hots, Ahozko Historiako proiektua: oinarri teoriko-praktikoak, Proiektuaren garapen praktikoa: nola egin dugu, Ahozko historiako narratibak: euskarri anitzak eta polifonikoak izenekoetan proiektuaren alderdi pedagogiakoa azaldu nahi dugu, prozesua taxutzeko irizpide teorikoak eta aurrera eramateko urrats praktikoa. Ahozko historiako proiektuak bertatik bertara

sortu behar direla uste dugun horietakoak garen arren, esperientzien azalpen zehatzak beste berri batzuk bultzatzeko baliagarriak izan daitezkeelakoan gaude, eta asmo horrekin idatzi dugun ondorengo. Argigarria izan dakizun.

HASTAPENAK GOGOAN

2006 urtean Santurtziko Bihotz Gaztea Ikastolan ez zegoen ea zereginik. 600 bat ikasleren formakuntza arlo akademikoan, euren orientazio eta jarraipen tutoriala, familiekiko harreman estuari eutsi beharra, nahi zutenentzako eskolaz kanpoko ekintzak, bazkariak, autobusak eta abar. Ikasleekin batera 50 bat pertsona elkarlanean; irakasleak, ez dozentek, bolondresak. Kooperatibaren organuen kudeaketa, gobernuarekiko harremanak, eta zer esanik ez euskal kurrikuluari buruzko hausnarketa sakon bat. Hori guztia baino ez. Urte lasaia, beraz.

Urte lasaiagoa izan zitekeen ikastolaren 40 urteurrenera heldu ez bagina, baina heldu ginen. Hasiera batean hori ere ez zegoen argi. Sukaldez sukalde, pertsona engaiatu batzuen etxeetan, hasi zen ikastola honek laster egin zuen bat Bihotz Gaztea Elkarteko beste talde kulturalekin eta eurekin batera eman zituen bere ibilbideko lehenengo urteak.

Ikastola guztien sorreran, geurean halaxe da dudarik gabe, euskara eta Euskal Herriarekiko maitasunean oinarritutako hezkuntza proiektuak daude. Ikastola sortu zutenen asmoan ez zegoen instituzioaren beraren promozioaren handinahia, historia ospatzeko gogoia, protokoloaren grina. Zerbait freskoago eta sinpleagoa zen: familia euskaltzalek euren seme-alabak euskalduntzeko gura zuten eskola euskalduna sortu.

Horretan ari ginen Ikastola 40 urteurrenera heldu zen momentuan. Problema bat –ezbairik gabe– baina konpongarria. Aurrekontuetan diru kopuru bat gorde, herriko antzokiren batean ekitaldi hunkigarri bat antolatu, oroigarriak, zaharrenei omenaldi bero bat eta ikastolako gaur eguneko ikasle bikote eder baten lore eskaintza, musuak, aureskua eta halakoetan egiten diren beste ekintza guziak, politikari lustrosoren bati eginiko gonbidapena eta bere diskurtso motibagarria barne.

Ohiko jai horrezaz gain, gurean ez zen faltako ikastolaren historia bilduko zuen liburua. Edizio zaindua, azal gogorra, kalitatezko papera, argazki zaharrak zuri-beltzean eta modernoak kolorez. Denetarik egongo zen. Eskerrak emateko, liburu horretan, ikastolaren historian egon diren guztien izenen zerrenda ere jarri behar genuen, modu horretan norbaitek bere izena behar zen tokian aurkitzen ez bazuen, behar bezain nabarmenduta –edo larriagoa dena– besterik gabe izena aurkitzen ez bazuen, haserrealdi eder baterako gaia topako zuen.

Urteurrenaren antolamenduan hasteko prest geundenean, Idoia Fernandez izena heldu zitzaigun bulegora. Lehenengo urteetako ikasle ohia, herriko neska beraz, gaur egun Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle dagoena, doktore eta gainera tesia ikastolen historiaren inguruan egin zuena. Bikain. Bagenuen liburua idatziko zigun norbait: espezialista, ikastolarekin harremana duena, jakituna. Ezin hobeto.

“Desde Santurtzi a Donostia” joan ginen berarekin hitz egitera. Ez zigun ezetz esango: gaiaz bazekien zerbait, aspaldian zegoen ikastolen sorreran interesaturik, bere herriko ikastola zen azken batean. Bazeuden bera limurtzeko argudio ezberdinak, behar izanez gero bihotzeko xantaia egiteko modua ere bagenuen.

Unibertsitateko bulegoan eserita irri zabal batez egin zigun abegi. Santurtzitik gentozen eta, beraz, aurkezpen txartelik ez genuen behar. Ilusionaturik zegoela antzematen zen argi eta garbi. Ezin errazagoa izango zela jabetu ginen berehala. Gauzak horrela, luzamendutan galdu gabe, ausartu ginen galdera egiten: “Idoia, idatziko al diguzu zeuk ikastolaren historiaren liburua?” Erantzuna borobila: “ez”. Momentu horretantxe hasi zen ikastolaren ahozko historiaren abentura.

“Ikastolaren historia guztien artean idatzi behar dugu”, zioen Idoiak. Zenbait komunitateen iragan hurbila batu eta eraikitzeke prozedurari jarraituko geniola azaldu zigun. Ikastolaren ibilbidean zehar protagonisten lekukotza zuzenean oinarriturik egitura narratibo eta korala eraikiko dugu. Ikasleak eta lekukoak elkarri begira jarrita transmitituko zaigu ikastolaren ondarea, eta gero gure historia idatzi, marraztu, kantatu, grabatu eta noski ospatuko dugu.

Hitz hutsak? Pedagogia teorikoa? Planteamendu pedagogiko modernoa bazen, baina konplexua. Ikastola osoaren errekurtsioak beharko ziren koordinatu, orain ditugunak eta iraganeko asko ere bai. Adin ezberdinetako ikasleen gaitasunak kontuan hartu, irakasle ezberdinen igurikapenak gogoan eduki, programazio-etan ekintza berriak sartu beharra, lan egiteko ekanduak eta inertiak aztoratu... gauza asko ikutu behar ziren.

Hasiera batetik Idoia Fernandezek argitu zigun zalantza: pedagogian dokto-rea, ikastolara etorri eta gurekin batera lokatzetan sartu zen lehenengo momentutik. Irakasle taldea gidatuz, zuzendaritza orientatuz, ikastolako protagonisten izenak eta kontaktuak ekarriz, argazkiak bilduz, herriko elkarteekin tartekari lana eginez, lekukotzen amaierarik gabeko grabazio ordu luzeak aztertuz, pedagogia praktikoko ikasgaia eman digu. Bihotz Gaztez eskerrik asko.

Donostiara soluzioaren bila joan ginen eta abentura baterako gonbitea ekarri genuen bertatik. Ikasturtearen bukaerara hurbiltzen ari garen momentu honetan, hasiera batean itsutzen gintuen gandua garbitzen ari da eta abenturaren bukaerari, guztion artean zerbait konpartitzeko dagoela ari gara deskubritzen. Pertsona askok eta askok euren senperrenez ikastolaren ibilbidean zehar utzi duten ondarea, utzi duten altxorra.

AHOZKO HISTORIAKO PROIEKTUA: OINARRI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Arestian aipatu dugu egitasmo honen muina Santurtziko Bihotz Gaztea ikastolako 40 urteurrena dela-eta ahozko historiako heziketa-proiektua aurrera eramatea izan zela. Kontua da formulazio hori egitasmoa ahalbidetzeko oraindik ere askoz ere gehiago mamitu behar zela, batez ere filosofia pedagogikoari dagokionez. Prozesu horretako sustatzaile ginen aldetik, ikastolako komunitatearengaino iritsi beharra ikusten genuen (gurasoak, irakasleak, ikasleak eta lekukoak)

eta horretarako oinarrizko ideia batzuk finkatu behar genituela ikusi genuen. Honako hauek:

- Historia jendeak egiten du, ez da liburuetan dagoen zerbait baizik eta jendartean iraganean egin den zerbait. Beraz, historiako subjektuei eman behar zaie hitza iraganaren interpretazioa egin dezaten. Lekukoak eta leku-kotzak dira ahozko historiako proiektuaren ardatzak.
- Lekukoen testigantzak jaso egin behar dira, eta horretarako tresna nagusia elkarrizketa da.
- Lan hori ikerketa lana egitea da. Proiektu honetako ikerlariak ikastola honetako ikasleak eta irakasleak izango dira. Denak dira ikerlariak eta bakoitzak egingo du ikerketa bere neurrian, hau da, iraganaren interpretazioa euskarri eta formatu desberdinetan bueltatuko zaie historiako protagonistei.

Orain, testuan txertatzen ditugunean, batek pentsa lezake ideia apaingarriak direla esperientziari itxura emateko, baina ez da horrela. Hiru ideion inguruan, batez ere irakasleekin, hizkuntza komuna eraikitzeko lan saio desberdinak egin behar izan genituen guztiok ideiak esanahi berarekin ulertu ahal izateko eta oinarrizko komunikazioari bermeak jartzeko. Esan dezagun, hastapenetan zail samar egin zitzaie proiektua "ikustea", hau da, lekukoen testigantzak gure lehengai nagusia zirela, eta, elkarrizketak gure tresna.

Idea teoriko-praktiko hauekin, oro har, bi asmo nagusi bete nahi genituen ikastolari begira. Alde batetik, ikastolako iraganaz jabetu, hari buruzko narratiba desberdinak ekoitziz; eta bestetik, proiektuaren bidez ikastolako sorreran eta hastapenetan bizi zen komunitate zentzua berreskuratu, irakasleak eta ikasleak ikerlari rolean jarriz eta euren arteko sinergiak bilatuz. Ikus daitekeenez, ez ginen esku hutsik abiatzen, nahiz eta prozesua guztiz zabalik abiarazi eta partaide ugari biltzen duen proiektu guztietan bezalaxe ziurgabetasuna handia izan.

PROIEKTUAREN GARAPEN PRAKTIKOA. NOLA EGIN DUGU?

*Lo esperado no se cumple y para lo inesperado
un dios abre la puerta.*

Eurípides

Ez da erraz azaltzen askotariko aldeak izan dituen proiektu bat. Aldez aurretikoak zerrendatu ditugu baina zinez konplexua da prozesua gertatu den bitartean zein ideia eta urratsak diren funtsezkoak hitzez jartzea, egin denaren ideia global eta ulerkorra aditzera emateko. Ez zen alde aurretik egin plangintza edo diseinu bat prozesua bera gidatzeko baizik eta aipatu ditugun ideiak buruan genituelarik, gogoeta-ekintza ziklo etengabe bat. Beraz, teoria pedagogikoari dagokionez, ez da ikuspegi determinista batekin aritu, ez da helburuen lorpenari begira taxututako planifikazio baten arabera jaito eta garatu den prozesua. Gure artean sarri komentatu dugun bezala, orden printzipio bat zegoelarik (zuzendaritza taldeko kideei egokitu zaie, nagusiki prozesuaren ikuspegi globala zuten neurrian, planifi-

kazio orokorreko ekintzak egitea) kaosean eta ziurtasunean aritzea beharrezkoa zen, benetan proiektu sortzaile eta zabala bultzatu nahiez gero. Edgar Morinek dioen bezala “Es necesario a aprender a navegar en un océano de incertidumbres a través de archipiélagos de certeza” (Morin, 2001:21). Egia da era horretan jokatzek talka egiten duela eskolan azken aldi honetan hainbeste zabaldu den logika arrazionaliztailearekin, baita gure ziurtasun eta kontrol nahiekin ere, baina guk ere uste genuen behin-behineko ziurtasunekin eta etengabeko ziurgabetasunarekin jokatu beharrean geundela, are gehiago heziketa lanetan bagenbiltzan. Hau esanda, eginiko bideari mugariak jarri nahi gabe nondik norako batzuk zehazten ahaleginduko gara, beti jakinda tokian tokikoak direla eta zentzu horretan ez dutela asmo orokortailerik.

Esan genezake proiektuan sortze-lanerako gunea desberdinak egon direla, ikuspegi global batetik eraiki eta berreraiki direnak baina aldi berean autonomoki autoerregulatu direnak. Gunea esatean ez gara zentzu hertsian toki fisikoaz edo eragile multzo jakin batez ari, ahozko historiako proiektua autonomoki baina helburu eta zentzu partekatu batez lanean diharduten azpi-prozesuez baizik, elkarrengileak eta elkarren menpekoak. Honakoak dira:

1. Komunitatearen gunea. Nahi bada, gunea honek ikasgelaz kanpoko hartuko luke bere baitan. Lehenik eta behin urteurreneko ikurra diseinatu da, hain zuzen ere ikastolako sorrerako pasarte mitiko bat baliatuz. Izan ere, ikastolako sortzaileetako batek, Antolin Eguzkitza zenak, duela hamabost bat urte eginiko elkarrizketa batean kontatu zuen lau lagun mendira perretxikotan joan ziren batean otu zitzaie la ikastola egiteko ideia eta Seat 600 batean luze eztabaidatu ondoren hura martxan jartzeko erabaki irmoa hartu zutela. Zer esanik ez ordurako Euskal Herrian eta areago, gertuko herrietan (Algorta edo Portugaleta kasu), ikastolagintza xumeki hasita zegoela baina pasarteak indarra hartu du egiazkoa izateaz gain egoerari irudi bat atxikitzen zuelako. Guk uste dugu une honetan sorrera mitiko hau ikastolako ume guztiek Seat 600ari esker ezagutzen dutela. Ikurra zabaldu eta sozializatzen joan da zuzendaritzak dituen ohiko bideetatik sentsibilizazioa egin den neurrian: asanbladan eta ikastolako organo desberdinetan aurkeztuz, eta familia guztiengana aldizkaria bidaliz, ospakizunerako materialak (txanoak, kamisetak, motxilak...) eginez etab.

Gunea horretan ere koka dezakegu lekuko batzordearen lana. Izan ere, ahozko historiako proiektua hasiaz batera lekukoak aurkitzeko eta eurekin harremanetan jartzeko sortu zen batzorde bat. Batzordearen eraketa hau xe izan zen:

- Ikastolako andereño bi, hasierako urteetatik daudenak.
- Ikastolako idazkaria. Ikasle ohia.
- Ikastolako andereño bat. Ikasle ohia eta gaur egun ikastolako ama.
- Gaur eguneko aita bat. Ikasle ohia eta hasierako urteetako familia bultzatzaile baten semea.
- Zuzendaritzako kide bat.

Batzorde honen lana nagusiki lekukoen zerrendak egin, perfilak zehaztu (noiz egon diren ikastolan, zenbat denboran, zergatik diren esanguratsuak...), harremanetan jarri eta beste lekuko gehiago bilatzea izan da. Horrez gain, datuak biltzen joan ziren, argazkiak jaso eta kudeatu... Finean, ikerketa kualitatiboan erabili ohi dugun lekukoak aurkitzeko elur-bolaren teknika bera baina eskola ingurumarian.

- 2. Irakasleen gunea.** Ikastolako klaustroan aurkeztu ondoren, irakasleen talde bat eratu zen, non ikas-zikloak eta etapak ordezkaturak zeuden. Talde honetan ikasle batek, UPV/EHUko aholkulariak eta zuzendaritzako kide bik ere lan egin dute. Hasieratik bagenekien gune hau funtsezkoa eta ordezkazina zela proiektua aurrera eramateko. Proiektu zabal batek, zeinean denek ikastolako historia biziarekin, hau da lekukoekin, harremanetan jartzzen zen eta hortik historiaren narrazio bat sortzen zen, ahalik eta jende gehienengatik erabiltzeko behar du eta hori ez da berez kausitzen. Kanpoko eragileak, kasu honetan UPV/EHUko aholkulariak, ardura tekniko handia zuen gune honetan, eta zentzu horretan bideratzaile rola hartu eta partaideen ezagupen praktikoa erabiliz prestakuntza gune gisa irudikatu zuen espazio hau¹.

Gune honetan burutu den lanak hiru ardatz izan ditu:

- a. Hasiera batean, umeekin eta lekukoekin lanean hasi aurretik, proiektuaren inguruan **hizkuntza komuna** eraikitzeko eta partaideen konpromisoa lortzeko saio batzuk egin ziren, zehazki astero bat ordu betekoa, modu altxerian talde naturalean (ziklo, mailako irakasleekin) eta ordezkari zirenak kanpoko bideratzailearekin. Hizkuntza komunaren saiakera nagusia ideia ulertzera zuzendu zen, eta, modu praktikoa helburu komun bat formulatzera. Elkarrekiko lanak honako esaldira eraman gintuen:

Bihotz-Gaztearen, hau da, Santurtziko ikastolaren historia elkarlanean idatzi nahi dugu. Hori lortzeko, lehenengo urteetatik orain arteko protagonisten lekukotzez baliatuko gara.

- b. Hizkuntza komuna taxutzen joateaz batera, **zentzua ekoitzi** nahi genuen, hau da, ahozko historiako proiektuak, zuzendaritzatik etorri den arren eta kanpoko eragile batek bideratzen duen arren, irakasleek modu kolektiboan jabetzen diren proiektua izatera igaro behar du. Amaraun bat eraikitzea izan zen horretarako erabili genuen irudia, sare bat non denak elkarrekintzan dauden baina hierarkiarik ez dagoen. Gure ustez, puntu honetan dago proiektuaren arrakastaren


1. Esan dezagun prestakuntza, kasu honetan, gogoeta-ekintza jardun bezala ulertzen dugula, ez trebakuntza tekniko emateko jardun gisa. Izan ere, bideratzaileak baldintza egokiak sortarazi behar zituen taldekideek euren egoera zehaztetatik prozesu propioak sor zituzaten. Kasu honetan kanpotik ezarria zetonren ahozko testigantzak jaso behar zirela zen; beste guztia, besteak beste, nola uztartu ideia hori bakoitzaren curriculumean, nola, noiz, zein ekintza motarekin... zabalik zegoen, ikas-maila bakoitzak eta bertako irakasleek askatasun osoa zuten prozesua itxuratzeko.

gako garrantzitsuetako bat, alegia, nolako baldintzak sortu behar diren ingurumari jakin batean ideia bat indibiduala izatetik kolektiboa izatera. Sarri askotan, ideiak “kanpotik” eramaten/ekartzen ditugu eta espero dugu, beste inon ondo funtzionatu dutelako-edo, gurean ere ondo ateratzea. Zaku bete hauts. Horrelako planteamendu mekanizistek funtsa ahaztu egiten dute, alegia, ideiak ekintza esanguratsuak bilakatzeko pertsonen “iragazitik” pasatu behar direla eta pertsonekin konektatu ezean, distira-gabeko klonak baino ez direla. Zenbat proiektu eder, ekointzi diren jatorrizko egoeran guztiz onak izan direnak, beste toki batera eramaterakoan arrastaka doazen proiektu zamatsu ez ote diren bilakatu.

Gure esperientziak esaten zigun ahozko historiako proiektua besteen erabakimenpean jarri behar genuela, hau da, irakasleek askatasun osoa izan behar zutela egitasmoa aurrera eraman nahi zuten ala ez erabakitzeke, eta onetsiz gero proiektua itxuratzeko autonomia baina aldi berean laguntza eta kontrastea eman behar zitzaizkiela.

- c. Behin proiektua egiteko lehen onespina gertatu ondoren, **behetik gorako proiektua eraikitzeari eta goitik beherako zentzua** emateari ekin genion; hau da, denok helburu esplizitu bat idatzirik genuela eta irakasleek bere mailan eginiko jardueraren diseinuari ekin zioten, ondoko eskema komuna genuelarik:

Ikasleekin burutuko den hezkuntza zikloa



Modu operatiboan aritzeko, berriz, Ahozko historiako unitateen deskribapena izeneko txantiloia (1. eranskina) eta lekukoen fitxa (2. eranskina) eman genizkien, lanaren atal batzuk bederen irizpide berdinekin gauzatzen joateko. Diseinu fase hau oso sortzailea izan zen; irakasleek behin oinarritzko ideiaz jabetu ondoren bakoitzak bere gelan zer egin nahi zuten erabaki zuten, beti ere ikasleek zuten adina eta ahalmenari egokitzuz: ipuinak, ibilbide gidatua Santurtziko ikastola egon den eraikinetatik, argazki bilduma, irratsaioa, marrazki lehiaketa, aldizkaria, bertso-papera, denbora lerroa, komikia, rap emanaldia, bloga, ikastolako historiako bideoa...

Tokian tokiko, edo gelaz gelako diseinuak eztabaidatu eta kontrastatu egin ziren banan banaka, zentzu gehiago emateko eta kanpotik geunden eragileek proiektuaren ikuspegi globala eta komunari koherentzia emateko. Diseinuetan jardueren hezkuntza zentzua "ikusit" eta "ikustarazi" behar genituen, antolakuntzako mapa bateratu batean txertatzeaz gain (3. eranskina).

3. Ikasleen gunea. Aurreko gunean eginikoa gauzatzeko gunea dugu hau, zentzu hertsian ahozko historiako lekukotasunak zuzenean lan egiten den unea. Ikastolako historian engaiatuta egon ziren pertsonetikiko elkarrizketak, gelaz gela prestatu ziren irakasleen gunean partekatutako elkarrizketa gida bat aintzat hartuta (4. eranskina) eta ingurumari bakoitzak behar zuen moduan egokituta. Egokitzapen hau garrantzitsua da, zeren ikasleen adinari eta ikaskuntza interesari lotu behar baitaio, horregatik galderen formulazioa bera tokian tokiko moldaketa jaso zuen, baita ikasleek eurek prestaketan pentsatutako galdera berriez osatu ere. Ahozko historiako kanpo-lan hau egiteko orduan, prozesuari norabide zehatza jarri zioten erabaki batzuk hartu ziren. Ondoko hauek:

- Lekukoen soslaiaren arabera, bi motatako elkarrizketak antolatu ziren. Alde batetik ikastolako historia ezagutzeko funtsezkotzat jotzen ziren testigantzak (sorrerako unekoak, edota ikastolaren ibilbidean jauzi kualitatiboak eman diren unetan egondako pertsonak); eta bestetik historiako partaideak izanda, garai jakin bateko eguneroko bizitzaren testigantza emango zutenak (ikasle-ohiak, guraso-ohiak...).
- Ikastolako historia idazteko esanguratsuak ziren pertsonen elkarrizketako ardura DBHko ikasle eta irakasleei esleitu zitzairen, eta arlo teknikoa enpresa profesional baten ardurapean egon zen (bideo grabaketa eta azken bideoaren edizioa). Bestelako elkarrizketak LHko ikasle eta irakasleen ardura izango zen, eta grabazioak egotekotan ikastolako baliabideak erabilita egingo ziren.
- Elkarrizketen aldi hau trinkoa eta motza izango zen, aste betekoa hain justu, eta zuzendaritzaren aldetik antolakuntza eta plangintza zehatza exijitu zuen (espazioak, denbora, baliabideak, jendeari harrera egin...).

Orotarik hemeretzi elkarrizketa profesional egin ziren, eta beste hamabost bideo arrunta erabiliz orotarik 28 orduko grabazioa.

AHOZKO PROIEKTUAREN NARRATIBAK: EUSKARRI ANITZAK ETA POLIFONIA

Orain arte prozesuaren ezaugarriaz aritu bagara, azken produktuez ere zer-bait esan beharra dagoela uste dugu. Produktzioa anitza izan da baina arreta berezia jarri diogu gelatik kanpoko loturak eraikitzeari, alegia, taldeen eta produktuen arteko sinergiak indartzeari. Horrexegatik planifikazioan bertan aurreikusi genuen ikas-maila bakoitzaren emaitzak edo produktuak beste produktu kolektiboagoko batean kokatzeari eta uztartzeari. Produktu zabalago edo biltzaile hauek, besteak beste, erakusketa mundiala, aldizkaria, altxorra eta bideoa izan dira.

Eskema baten bidez honela laburbil daiteke produktuen arteko uztarteta:

AHOZKO HISTORIA / PRODUKTU EZBERDINAK			
Hartutako lekukotzak	Ikasle parte-hartzaileak		Etapas parte-hartzaileak
40	600 (guztiak)		HH, LH, DBH (ikastola osorik)
Lanak taldea edo kurtsoka	Lanak etapaka		Ikastolaren lanak
HH Ipuina	HH	Erakusketa mundiala pasabidean	DVD Dokumentu dibulgatiboa: Ikastolaren historia laburra Ikastolaren altxorra 40 urteurreneko jaialdia
HH Bertso fitxa			
HH Puzzle fitxa			
LH 1 Ibilbidea "atzo eta gaur"	LH	40 urteurreneko aldizkaria	
LH 2 Irratsaioa			
LH 3 Biñeta. Marrazki lehiaketa			
LH 4 Rap-a			
LH 5 Bertso paperak Kronologiaren erroa			
LH 6 40 Urteurrenaren aldizkaria			
DBH 1 Galdera eta erantzunen jokua. Frankismoaren girotzea Erakusketaren aurkezpen multimedia	DBH	Erakusketa Altxorra	
DBH 2 Komikia			
DBH 3 Erakusketa ibiltaria Elkarrizketak			
DBH 4 Elkarrizketak Ikastolaren altxorra			

Etapetako proiektu kolektiboak, kurtso ezberdinetako umeek egindakoez osatu dira ondorengo deskribapen xumeetan ikusi ahal denez:

- Erakusketa mundiala: HH-ko geletan eginiko fitxekin eta marrazkiekin etaparen pasabidea apaindu da. Ez da falta urteurrenaren ikurra, ikastolaren kotxea, ume guztien artean paper puskez osatua.
- Aldizkaria: LH-ko lanik onenak batzeko sortua. Bertan, bertso paperak, historia komik bidez, biñetarik onenak, ikastolaren egoitza ezberdinetatik txikiak egin duten ibilbidearen erreportaia, pasadizoen bilduma eta abar.
- Blog-a: ikastolako web orrialdean esteka baten bidez beste espazio honetara jo daiteke bertan lan ezberdinak eskegitzeko edo ikusteko.
- Erakusketa: herrira eraman daitekeen ikastolaren objektuen bilduma. Argazkiak, garai ezberdinetako material pedagogikoak, ikastolaren aldizkariak, txandalak, logotipoaren bilakaera eta abar.
- Ikastolaren altxorra: altxor-kutxa bat da. Bertan aurten ikasleek gure historiaren inguruan egin dituzten lanik ederrenak gordetzen ari dira. Txikien irratsoak adibidez, familiei kopia bana diskoan eman ostean, ale bat altxorrean gorde da. Gauza bera egin da LH-ko aldizkariarekin eta DVD formatuan egin diren lekuko guztien grabazioekin. Altxorrean ere DBH 4. mailako ikasleek ere euren altxor pertsonal bat sartzeko aukera izan dute, mezu banarekin. Klaustroak, noski, bere espazioa dauka altxorrean objektu edo mezu bat sartzeko, eta Artezkaritza kontseiluak, azkenik, mezu misteriotsu bat sartuko du altxor barruan. Altxorra urteurrenako jaialdian itxiko da eta 10 urte barru, ikastola 50 urteurrenara ailegatzen denean, zabalduko da berriro. Produktu honek iragana eta etorkizuna lotu nahi ditu nolabait.

ZENBAIT ONDORIO

Abentura edo bidaiaren bukaeratik gertu gaudela zenbait oldozpen egin ditzakegu ikasturte honetan ikasi dugunaz –ikasi edo birgogoratu zenbait kasutan–.

Ikasi dugun lehengo ideia historiaren barne dinamismoa da. Ikastolaren sortzaileek ez zuten aurreikusten euren proiektu tipia gaur eguneko ikastolaren tamainara helduko zenik. Ez zekiten momenturen batean materialgintza estandarizatuko zenik, IKTak euskalduntzeko premia helduko zitzaigunik. Historia etengabe aldatzen doa baina instituzioak ez luke iparra galdu behar horren aldakorak diren errealitateen artean.

Hasierako urteetan, garai hartako zapalkuntzari aurre eginez, seme-alabak euskaraz hezteko arrisku handiak hartzeko prest zeudela erakutsi digute orduko gurasoek. Euren eredia ikusita, galdera pare bat utzi digute mahai gainean. Gaur egun ere, abiaburu horiek zutik al diraute guretzat? Ez al dugu arazo berrien zirimola honetan ikastolaren sorrerako asmoak eta ametsak ahazteko

arriskua?

Filosofia albo batera utzita, ikasleek askotxo ikasi dutela pentsatzen dugu. Batetik ikastolaren historiari badakite zerbait: txikienek hasierako urteetako egoitzak bisitatu dituzte, eta nagusienek lekukoek motibazioak barrutik ezagutu. Denek dakite euren ez dela beste edozein ikastetxe bezalakoa, herri ekimen kooperatibo eta euskaltzalea dela ulertu dute, bakoitzak bere adinak uzten dion neurrian.

Honez gainera margotu, fotografiatu, dantzatu, kantatu, idatzi, irakurri, galdetu, arretaz entzun, laburbildu, ordenatu, hausnartu egin dute. Lanik onenak aukeratu dituzte, guztienak baloratu ostean. Etapa eta kurtso ezberdinetako ikasleek trebezia ezberdinak landu dituzte, proiektu malgu honi esker.

Baina trebeziez gain, proiektuak balioen hezkuntzan sakontzeko abagune balioitsuak oparitu dizkigu. Ikasleek esker onekoa izateko beharra ikusi dute eta pertsona konprometituen lanak ekartzen dituen fruituak baloratzeko aukera izan dute.

Ikasleengandik irakasleek ere izan dute zer ikasia: ikastolari begiratzeko modu maitekor eta xaloa. Askotan ikastolek hartu duten dimentsioek ez digute laguntzen proiektua ulertzerakoan. Enpresa ikuspegia sartzen da begietatik, irakasle asko gazteak dira, eta askotan herri ezberdinetakoak eta zail bilakatzen da ikastolaren sorrerako balioak eta herrian dituen sustraiak eurekin konpartitzea lehenengo momentutik. Irakasleek orokorrean, ikasleen ikastolarako begirada txeratsuan izan dute zer kopiatua.

Lekukoak ondorio hauetan aipatu behar ditugu, nola ez, modu berezian. Historia ezagutzeko ez dago modu sarkorragorik eta egiazkoagorik historia horren alma mater-a izan direnen ahotsak entzutea baino. Lehenengo urteetako zenbait emakume ekarri beharko liriteke gogora momentu honetan. Euren etxeetan, Haur Eskola bat edukitzeko prest egon ziren emakume haiek. Ebakuazio planik gabeko etxebizitza haietan beste familien seme-alabak klandestinoki zaintzeko prest egon ziren emakume ausartak. Ikastolako lehenengo andereñoak, euren profesionaltasuna inongo materialik gabe frogatu behar izan zuten ere gure miresmena irabazi dute.

Familiak, jakina, eduki behar ditugu hizpide. Hodeien gainean sustatutako proiektuak euren ondare pribatuarekin bermatzen zituztenak. Arratsaldeetako ordu luzeak herriko proiektu honekin euren elkarbizitzari denbora lapurtzen ziotenak.

Lekukoek altxorraren erakusgarri ederrenetakoa, hala ere, euskaltzaletasuna da. Zenbat euskaltzale –nahiz eta euskaldun izan ez– egon ziren ikastolaren sorrerako urteetan eta historian zehar ikastolak sufritu dituen hainbat kinka zailetan. Euskaldunak izan gabe, seme-alabak euskalduntzeko hezkuntza-sistema arrotz baten azpian, arriskuak hartzeko prest egon diren familia eta norbanakoak. Mundu globalizatu eta eleaniztun honetan, non hizkuntzak nonahi eskura ditugun, gure ikasleek eta guk geuk galdu dugu euskaraz ikasi, mintzatu, ikasi eta lan egiteko dugun aukerak suposatzen duen poza. Aitortu behar da gure garaiko

gazte askok euskaraz ikasteko zortea izan dutela eta ez dituztela horretaraino iristeko izan diren nekeak behar beste baloratzen.

Bestalde, ikastolaren balioen artean betidanik izan dugun balio bat berpizten edo berrindartzen lagundu digu proiektuak: elkarlana. Elkarlana, ospe ona duen arren, ez da erraza praktikan. Gauza sinpleak aldrebesten ditu maiz, lasterbidea ikusten dugun momentu askotan partaidetzaren laberintuetan sartzen gaitu usu. Hori horrela izanda, ikastolaren historia ongi aztertuz gero, pentsa liteke ikastolak ondoen funtzionatu duela familien eta profesionalen indarrak batera etorri direnean.

Horrezaz gain, aurreko argi gelditu zaigu guztien elkarlanak ondorio biderkatzailerik eduki ahal duela denok batera geure arteko sinergiak indartzen ditugunean. Hasierako ganduak, lausoak, eta lainoak desagertzen joan direnean, oskarbia ateratu da. Ikastola osoak sortu duen lana pertsonen gaitasunetatik harago baitoa, konplexu, agian kaotiko, baina dudarik gabe askoz aberasgarriagoa delako.

Lan guztiaren ondorioz, gure eguneroko zereginak hobeto ulertzen ditugu, eta hori ez da gutxi. Era esanguratsu batean lan egiteak gizatiarrago bilakatzen gaitu. Egiten ari garenen zentzuak duintzen ditu geure ahaleginak. Urte osoko lanaren ostean, oskarbi eta ospel guztiekin argi duguna zera da: umeak euskaraz, zientzia eta hizkuntzetan, askatasunean eta giza balioetan hezteko proiektu kooperatibo bat dugula. Eta hori altxor bat dela. Santurtzin altxorak Bihotz Gaztea dauka.

1. ERANSKINA



AHOZKO HISTORIA	
UNITATEAREN DESKRIBAPENA	
Ekintzaren IZENBURUA ²	
Etapas / maila	Arloa
Irakasleak	

ALDE TEKNIKO ³

Hasiera data
Bukaera data
Zenbat saio
Zenbat ikaslek hartuko dute parte ⁴
Beharko diren baliabideen zerrenda

HISTORIAREN ETAPA ⁵

--

2. Jarduera zer izango da: irratsaioa, erreportaia, erakusketa...

3. Nahiz eta erantzun guztiak jakin ez, komeni da ahal den heinean zehatzak izatea.

4. DBH-n, aukerako asignaturetan, adibidez, ez dute gelak osorik parte hartzen...

5. Zer landuko duzue: historiako zein momentu, historia osorik?, urte konkretu batzuk?, pasarte zehatz bat?

UNITATEAREN FASEAK

GIROTZEA⁶

UNITATEA PAUSUZ PAUSU⁷

AZKEN PRODUKTUA⁸

6. Zer egingo dugu ekimena koherentziaz eta zentzuz ikastolako zereginetan uztartzeko; beste era batez esanda, zelan girotuko dugu ekintza?

7. Esan, kronologikoki ordenatuta, unitate honetan proiektua aurrera ateratzeko eman behar diren urratsak, hau da, zertan datzan konkretuki: elkarrizketa prestatu, egin, informazioa bildu, argazkiak ordenatu, aldizkaria sortu, kopiatu... (adibideak baino ez dira). Gogoratu hemen LEKUKO-TZA dela klabea.

8. Deskribatu laburki zein eta nolakoa izan behar duen azkenean sortuko den produktoa.

2. ERANSKINA



LEKUKOEN FITXA

AHOZKO HISTORIA – 40 URTEURRENA				
Abizenak	Izena	t?	Ezkontidea / bikoteat?	t?
Ikastolarekiko harremana			Noiztik	Noiz arte
Multzokatzeko irizpidea: (ikasle, irakasle, sortzaile, bultzatzaile,...)				
OHARRAK:				



AHOZKO HISTORIA 2006-2007 IKASTURTEA									
ETAPA MAILA	IRAKASLEAK	Ikasle Kopurua	PRODUKTOA	EPEA	LEKUKOAK	Lekuko kopurua	PLAZARAKETA	SINERGIAK	
				Hasierra Bukarea					
HH	Izenak	202	Ipuina / bertso fixa / puzzle fixa	urtarrila	marxoak	Izenak	Komenilo litzateke ipuinaren kontakera nolabait grabatzea eta posterra erakusteko moduan jartzea.	LH 1. zikloarekin	egiten ari diren bitartean DVD-an grabatu behar da umeen lana.
	Izenak			30					
	Izenak	otsaila	marxoak	Izenak	HH-ko pasiluan				
	Izenak	urtarrila	abendua	Izenak	Ikastolaren egoitzetatik ibilaldia azalpenak				
LH 1	Izenak	42	Argazki bilduma: atzo eta gaur	urtarrila	marx. 2	Izenak	Argazkien oinarri idatzi behar dituzte	HH-koekin kontaktua	
	Izenak			2					
LH 2	Izenak	45	Iratsua: hiru zati izango ditu, lehenengoan ipuin bat ikastolan buruz, bigarrenean ikastolaren historiai buruzko galderak eta hirugarrenean lekukoet egingo zaien elkarrizketa.	otsailak	marxoak	Izenak	Erakusketak bidez puzatuko da. Honez gainera irabazteak gazbi aldiakarian publikatu litezke. LHko pasiluan ere		Elkarriketak egiten ditugun beste gurtioak pasadiza xeletbreak kontatu behar dizkiegu lan honetan dabilazane
	Izenak			29	9				
LH 3	Izenak	37	Marraki lehiaketa: ikastolako gertaera xeletbreak. Erakusketak bat egingo dute lanean.	urtarrilak	otsailak	Izenak	DVD		Ez dute lekukorik, beraz elikatu behar dira beste taldeengandik
	Izenak			9	21				
LH 4	Izenak	44	40 urteurrenko RAP-a, DVD batean grabatu behar dute.	otsailak	marxoak	Izenak	DVD eta Gazbi Aldizkaria		
	Izenak			15	2				
LH 5	Izenak	45	Bertso paperen txapelketa	urtarrilak	marxoak	Izenak	Horriudia euren pasiluan jarri daiteke		Horriudia betetzeko postonzi bat jarriko dute eta beste taldeetatik ekarpenak bertan jasoko dituzte lehoan ipintzeko
	Izenak			8	31				
LH 6	Izenak	45	Aldizkaria 40 urteurrenaren monografi-koa. Elkarrizketak, denbora pasak, argazkiak, besteak beste ekarpenak...	urtarrila	marxoak	Izenak	Ebaluatu behariko da non eta nola banatu Aldizkaria 3. niabetean banatuko die laguntza.		LH-ko beste produktuen bilduma izan behar du. Asier Fontalek emango die laguntza.
	Izenak			9 ?					
DBH 1	Izenak	31	Preguntas y respuestas. Lengua arloa. Eskola eta ingumaria frankismoaren garaian	abendua	otsaila	Izenak	Jolas bat: galdera bilduma bat		Gara! horretako testuak marjatuko dituzte eta testu horiekin elikatuko dute 3. eta 4. mailakoen grotza. Galderak LH-ko aldiakarian erabili litezke test aritzean.

ETAPA MAILA	IRAKASLEAK	PRODUKTOA	EPEA Hasiera Buklerra	LEKUKOA	Lekuko kopurua	PLAZARAKETA	SINERGIAK	
DBH 1	* 17 (Komu. Talerra)	Power point (story board); DBH 3 mailan egrigo den erakusketaren aurkezpen multi media. Diapositiben montajea multimedia eta mezu ezberdinekin. Estirekin material bilketa eta prentsema edo zirkorroa egrigo dute. (Komunikazio talerra).	mar txoak 5 mar txoak 30	Izenak	0	Ludotelean jarri ahal da eta erakusketak herra jaitziz gero, hara ere eramango da.	Teknologia klaselko lana elikatzen dute.	
DBH 1	* 31	Power point (montajea); DBH 3 mailan egrigo den erakusketaren aurkezpen multi media. Diapositiben montajea musika eta mezu ezberdinekin. Ibonekin material gaztiak hartu eta montaje informalko eta dinamikoa egrigo dute. (Teknologia)	mar txoak mar txoak	Izenak		Ludotelean jarri ahal da eta erakusketak herra jaitziz gero, hara ere eramango da.	Power pointa erakusketaren alde multi media izango da.	
DBH 2	29	Komikia	mar txoak 12 mar txoak 22	Izenak		Komikiak erakusketarako formatuan egrigo dira.	Besteen elkarlaketaz elikatzen dira. Eginiko komikia erakusketan egrigo da.	
DBH 2	* 29	Frankismoa Gizarte arloan. Dokumentazioa bildu lezakeite ikasleek.	urtarrilak 22 otsailak 16	Izenak		Bilurako dokumentazioa erakusketaren giroze testuak izan litezke.	Dokumentazioak erakusketaren eta DVD-aren girozerako balioko dute.	
DBH 3	* 17	Elkarlaketak DVD-an (prentsa talerra)	mar txoak 1 mar txoak 30 ?	Izenak	10	Talde honen DVD profesionalarekin batera kopiatu liteke.	Talde honetako grabazioak beste taldeen lana elikatuko dute.	
DBH 3	39	Erakusketak		Izenak		Ludotelean jarri ahal da eta erakusketak herra jaitziz gero, hara ere eramango da.		
DBH 4	41 *	Erreportaiak; ikastolaren historiari buruzko erreportaiak	abendua abendua	Izenak	2	Blog-ean.	Lan honekin elikatu behar dute bloga eta DVD-a	
DBH 4	41 *	40 urteurrenaren bolga. Talde ezberdinetako lanak blog eskiegiko dituzte	urtarrila urtarrila	Izenak		Plazaraketa sarean egrigo da Web orrialdeetik eskiegia.	Talde ezberdinetako lanetatik elikatu behar dira.	
DBH 4	41	Ikasleek prestatuko dute kazetari profesionalak egin behar duten grabazioa eta montajea. Ikastolako alborrak.	urtarrila urtarrila	Izenak	9	ZELIS produzioak DVD profesionala gartuko du DBH 4 mailakoan lana eta beste taldeen lana erabiliz.	Talde hauetan eginikoa blog-era ere eraman behar da.	
	Σ				Σ	40		
ERAIKIRO DUGUNA		PASABIDE APAINKETA MUNDIALA	IPUJINA Bertso fitxa Puzte fitxa	ALDIZKARIA		BLOG	ERAKUSKETA Multimedia	DVD

4. ERANSKINA

Elkarrizketarako gidoia.

2007/1/8ko bileran lantzeko proposamena.

Kontuan hartu beharrekoak:

- Garrantzitsuagoak dira interesguneak galderak baino.
- Galderak ondo formulatzea ere garrantzitsua da, eta horregatik, aldez aurretik prestatu, entsaiatu eta naturaltasunez egin ahal izatea komeni da.
- Galdera guztiek ez dute balio (kontakizuna sortzeko balioagarriak direnak nagusiki).
- Galderak egokitu behar dira elkarrizketatuaren arabera, interesguneak ez.
- Elkarrizketa giroa sortu behar da, eta ikasleek, euren neurrian, sortu behar dute. Rol-Playing/antzezpeneen garrantzia.

Interes-guneak	Galdera posibleak
Motibazioak	Zergatik ikastola sortu? Zergatik ikastolara joan? Zerk bultzatu zintuen zure haurra ikastolara bialtzera? Zure ustez, gurasoek zergatik bialdu zintuzten ikastolara?
Ezagupena/harremanetarako lotunea (DBH)	Noren bidez heldu zinen ikastolara?
Testuingurua	Zein zen euskararen egoera zu ikastolan sartu zinen garaian? Nolakoak ziren beste eskolak? Zer aipagarri gertatzen ari zen Euskal Herrian? Nolakoa zen orduko Santurtzi?
Ikastola-esperientziaren deskribapena	Nolakoa zen orduko ikastola? Zer gogoratzen duzu orduko ikastolaz? Non zegoen, nolakoa zen? Nortzuk ziren andereñoak? Nondik ateratzen zenuten dirua andereñoei ordaintzeko? Zein liburu erabiltzen zenuten? (Hoberena da galdera bakarra egitea lekukoak berea konta dezan. Beste galderek esan duena osatzeko balio behar dute)
Aldaketen ikuspegia (DBH)	Ikastolan egon zaren denboran zein nolako aldaketa esanguratsu atzeman dituzu? Noiz eta zergatik gertatu ziren aldaketa horiek? Zu sartu zinen garaian, aldaketa handia suertatu zen ikastolan. Zer dela eta gertatu zen aldaketa hori?
Pasadizua	Zer gogoratzen duzu atseginez ikastola garaitik? Zer zen txarrena? Umeren batek eginiko bihurrikeririk handienea kontatuko al diguzu? Kontatuko al diguzu garai hartako xelebrekeriren bat?

Ekarpena/Proiektzioa	Zuk orain X urte dituzu. Ikastolan egoteak zer ekarri/ahalbidetu/eman dizu? Pertsona bezala zertan lagundu dizu? Ikastolan izan ondoren, nolakoa harremana izan duzu euskararekin eta euskal kulturarekin?
Aholkua/Proiektzioa	Zein mezu bialduko zenioke ikastolan ikasten dagoen ume/gazte bati?

AURRERA BEGIRA...

- Maila bakoitzean elkarrizketak egokitu eta birsortu ikasleekin batera.
- Elkarrizketarekin harremanetan jartzeko prozedura jakin bat zehaztu (komuna denontzat).
- Bideoak grabatzeko prozedura jakin bat zehaztu, baita kopiak ere egiteko (kontuan hartuta, nork erabili behar dituen besteak eginiko bideoak).
- Egutegia osatu, elkarren arteko lana koordinatu ahal izateko.

BIBLIOGRAFIA

- FERNANDEZ, Idoia (1993). Ahozko historia proposamen didaktiko gisa: oroimen historiakoaren eraikuntza kolektiboa. *Tantak*, 10, UPV/EHU, 23-40. orri.
- FREIRE, P. (1997). *A la sombra de este árbol*. Bartzelona: El Roure.
- FREIRE, P. (1999). *Autonomiaren pedagogía*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- ELLWOOD, S. (1985). Quién es... Paul Thompson? *Debats*, 12.
- FRASER, R. (1979). **Recuérdalo tú mismo, recuérdalo a otros**. *Historia oral de la guerra civil española*. Barcelona: Crítica.
- FRASER, R. (1985). *Mijas. República, guerra y franquismo*. Barcelona: Bosch.
- FRASER, R. (1986a). *Escondido. El Calvario de Manuel Cortés*. Valencia: Edicions Alfons el Magnànim.
- FRASER, R. (1986b). *En busca de un pasado. La mansión, Amnersfield, 1933-1945*. Valencia: Edicions Alfons el Magnànim.
- JOUTARD, P. (1986). *Esas voces que nos llegan del pasado*. México: Fondo de cultura económica. JOUTARD, P. (1984). El tratamiento del documento oral. *Debats*, 10.
- SAMUEL, R. (biltz.). (1984). *Historia popular y teoría socialista*. Crítica. Bartzelona; SAMUEL, R. (1984): Desprofesionalizar la historia. *Debats*, 10.
- SITTON, T.; MEHAFFY, G., & DAVIS, O. L. (1989). *Historia Oral. Una guía para profesores (y otras personas)*. México: Fondo de Cultura Económica.
- THOMPSON, P. (1984). La historia oral y el historiador. *Debats*, 10.
- THOMPSON, P. (1988). *La voz del pasado. La historia oral*. Valencia: Edicions Alfons el Magnànim.